

NORBERAREN ESPERANTZAREN ARRAZOIA EMATEAZ

Aspaldi (psikosia sufritutakoan) galdu nuen arren esperantza mundanal oro, galtzearekin batera beste esperantza bat irabazi nuen, sobrenaturala, ariketa espiritual batzuetan ebanjelio zatiak irakurriz. Asko estudiatu diren garai aspaldiko bat da ebanjelioena, Erromako inperioaren historiaren barruan kokatzen ahal da bertan kontatzen den historia, probintzia batean gertatua.

Gaur egun, baina, ez da fenomeno sobrenaturalik ikusten, eta gutxiago oraindik ikasten, zientzietan eta filosofian materialismoa nagusitua da, eta dena filosofia naturalaren arabera estudiatzen eta ikertzen da. Ez dago lekurik “irrazionalkerietarako”, eta sinestun jendeak esplikatzen du bere fede eskasa, hori da nire eskarmentua behintzat, emozioak eta sentimenduak azalduz, intuizioaren bidea goretsiz ere, guzti hori demostrazioa, ondorio erlazioa, ez dena.

Baina hori ez da egiazko kristauek egin behar dutena. Eta hori ez diot neure kabuz. Lehen aita santuak, san Pedrok, Jesussek Berak aukeratuak, honela dio epistola bateko pasarte batean: “Nork eginen dizue kalterik, zuek beti ongiaren egitera entseatzen bazarete?. Bainan zuzen jokatzegatik sufritu beharrean gertatzen bazarete, zoriontsuak zuek!. Ez izan inoren beldur; ez durduza!. Aitor zuen bihotzetan Jaun dela Kristo, eta egon beti prest zuen esperantzaren arrazoia eskatzen dizuenari ihardesteko; baina eztiki eta errespetuz, kontzientzia garbiz jokatu. Hola, Kristorengandik duzuen bizimolde onaz gaizki esaka ari direnak beren hitz gaixtoez ahalketuko dira.

Nolanahi ere, hobe ongia egiteagatik sufritzea, Jainkoak hala nahi badu, gaizkia egiteagatik sufritzea baino”. Beraz, lehen aita santuak jada badu agintzen kristauari beti prest egoteko bere esperantzaren arrazoia edozeini azaltzeko eta argitzeko.

Jakina, nik neure fedea errekuperatu dut gaixotu eta gero, ez nuen niretzat lekurik ikusten mundu honetan eta erraza izan zait kristautasunak exijitzen dituen errenuntziak asumitzea, azken batean ateo izaten jarraituz gaixoturik berdin errenuntziatu behar nuen. Eta san Inazioarekin konparatze bat eginenez, nik erraten nuen neure artean, hark ere erraza zuen konbertitzea, gortean herren egiten duen batek ez baitu aurrera egiteko ahalmen handirik. Eta Jesusen doktrina eta irakaspenak neure egin nituen, konbertitu egin nintzen.

Eta karrera amaitu ez dudan arren, nolabait espezializatu naiz filosofia kristauan. Konturatu naiz nonbait filosofia hori amaitua dela san Tomas Akinokoaren obrarekin, geroztik jada ia ez dago nabarmentzeko moduko filosofia kristaurik, bere lehen momentuan sortu zena filosofia paganoa garaitzeko, eta paganoekin, fedegabeekin, eztabaidatzeko, helburua zela jarraitzaileak egitea, jendearen konbertsioa.

Filosofia kristaua garatu da historian batez ere eskolastikan, izanik haren bururatzea, nonbait han, Akinokoa. Harrez gero filosofiaren historian gehien garatu dena da ateismoa eta baita kristautasunaren kontrako diskurtsoa ere. Atzera egin dugu beraz. Jada ez gaude kultura nagusiaren, orientalaren, buruan, behar ere ez gaitu behar. Hori diote. Zientifismoak gaina hartua du ia arlo guztietan, filosofia bera ere, zientzien zientzia bezala kontsidera daitekeena, filosofia bera ere alferrikakotzat hartuz.

Lehengo egunean nire lehengusina batek galdetu zidan ea zertaz idazten nuen, aszetikaz edo, eta nik erantzun nion filosofia egiten nuela, filosofia kristaua, eta horretarako hasten

nintzela ikertzen ea Bibliako testimonioak egiazkoak diren edo ez.

Bada Moisesen lege bat debekatzen duena testimonio faltsurik eta gezurrik erratea, eta lege inportantea da, hamar mamenduen barruan dago. Eta nik Bibliako historialariak konparatzen ditut historiografia modernoa egiten dutenekin. Azken hauek oso zientifistak dira, frogak behar dira erreseina historiko bat egiteko, eta egia zientifikoari oso atxikiak dira. Baina ikasiz nola egiten den historia modernoa, adibidez, historiografoek ez diote gauza bera izanik Estatu Batuetakoak ala Errusiakoak ala Txinakoak ala Japoniakoak. Komenentzien arabera apailatzen dituzte euren kontakizunak. Eta Biblia ere ikertzen dute bertan gertatzen diren fenomeno sobrenaturalak filosofia naturalera ekarriz, eta erabat humanoa eginez erlijio judeo kristaua. Mirariak, adibidez, ez omen dira existitzen, mitologia ere direla erraten didate lagun ateo batzuek. Eta lagun kristauak ere miraririk gabe berdin jarraituko luketela fededun izaten erraten didate. Hori ez omen da inportantea.

Historiografia modernoari ematen zaio jeneralean garrantzia, eta lekuko sakratuak intentzio pedagogiko batez edo idazten omen zuten, gutxi gorabehera. Horretaz ondo ohartu nintzen behin hitzaldi batean egon nintzelarik, hizlaria abadea zen gainera, eta erraten zuen Jesusek sekula ez zuela erran Bera zela bidea, egia eta bizitza, egia zela hori, baina Jesusek ez zuela erran. Eta nik eskua altxatu nuen, eta eman zidate-nean aukera hitz egiteko erran nuen ez zela ahaztu behar Moisesen legea, testimonio faltsurik eta gezurrik ez erratearena, eta konfundiduta utzi nuen apaiz hura.

Eta egia da, historia sakratua beti dator honela: errebelazio bat datorrelarik horren ondoan signo bat ageri da, fenomeno sobrenatural bat, hori nonbait han seilatuz, demostratuz egia dela. Nik gehiago sinesten dut historialari biblikoen testimonioetan ezen ez historiografo laikoenetan. Adan eta Evarena,

adibidez, ematen du gehiago dela mitoa, baina Caineek Abel hildakoan badu erraten edozeinek hil dezakeela, eta horrek suposatzen du populazio humano gehiago bazirela orduan. Bekatu jatorrizkoa, orduan, gizon emakumeak bere buruaren kontzientzia hartzean, nolabait, gertatzen da. Ez dakit seguru.

Jesusen garaietara etorriz nik ebanjelioetan erraten dena, signo mordoa egin zituela hori egiazkotzat hartzen dut. Eta mirariak erakusten digute Jesusek zuela pentsamendu bat a prioristikoa, zeharo infinituki gorago gure pentsamendu a posteriorikoa baino (zientzia naturala hortik dator), eta ahala bazuela Bere borondatea egiteko, signoetan ikasten da, eta Haren erranak egiazkoak zirela. Hor dago nire esperantzaren arrazionalizatze prozesua, san Paulok, zioen moduan, predikazioa egiten zuen gurutzea eta mirariak erakusten, gaur egun ikusten ez direnak. Hori da gaur egungo problema, Lourdes eta Fatima gertatu izan dira, baina fenomeno bakanak izan dira, eta erraten da nola zientzia aurrera egin ahala mirarien distirak atzera egiten duela, nahiz eta zientzia beti hasten den a posteriori, eta hortik indukzio perfekturik ezinezkoa den. Eta beraz, zientzia sekula ez da iristen signo batek erakusten duenera.

Azkenik, egiazko kristauek zer espero dute?, nik argi daukat, eta Kredoan ekartzen dut mahai gainera, egiazko kristauek espero dute mirari bat, oso handia izango dena denboren amaitzean. Izango omen dena, Jesusen arabera, guk ez dakigun egunean eta orduan.

Eta mirari baten definizio bat ere ondorioztatua dut, mirariak, edo signoak, juicio sintetikoak a priori dira (hori da nire ekarpena mirarien definizioaren estudioetan). A priori direlako zer ondorioztatu dezakegun erran dut aurrean, pentsamendu a prioristikoa erakusten dute, ezagutza unibertsala ere erakusten dute, kosmos honetan ezinezkoa dena, eta ez dira hori bakarrik. Jesusek signo bat egitean, deliberatu egiten du,

borondate libreaz deliberatu, eta hori juicio bat egitea bezala da. Eta sintetikoa izateak erran nahi du santua dela, Sokrate-sen intelektualismo moralak seinalatzen duen moduan, hau da, ezagutza nola unibertsala den Jesusen baitan, orduan Haren baitan moralaren burua ere gertatzen da, hau da, santua dela beste inor ez den moduan.

Nik ez dakit hori esplikazio xumea den, esplikaziorik gabe erran baitaiteke mirariengatik, fenomeno sobrenaturalengatik, sinesten dela (horren barruan egonik, jakina, Jesusen iragarpena, hiltzea eta piztuera, eta zeruratzea, desagertu zen arte laino baten ostean), eta signo horien testiguen sineste gehiago merezi dutela profanoek baino, Moisesen legearen pean idazten zutelako historia, kasu berezi horietan sakratua dena.

Bai, baina nik konbentzitu nahi ditut zientifikoak eta filosofoak. Eta agian Jainko nire Aitak eman dit filosofiarako halako dohain txiki bat (talentu bat, parabola batean aipatzen den moduan), baina ez literaturarako, eta idazle txarra naiz, baina agian filosofian badut zer erranik, eta horregatik behin erran nion lagun bati nik idazten dudala publikatzeko, zerbait badudalako ezin gorde daitekeena barruan. Eta Eliza Amak badit aukeratxo bat, nahikoa dena niretzat, eman, Karmeliten bitartez. Nire eskerrik beroenak erdalduntze garai hauetan euskaltzale diren horiei, beti ere hierarkiaren baimenarekin.

Ea asmatzen dudan hitz egokiekin nire egoera deskribatzen. Nik Jainkoa, Jesus, oso distante ikasten dut neure egunerokoan, ez dut sentitzen inondik inora, baina horregatik ez diot inexistentea dela, distante ikasten dudala baizik. Nonbait desolazioan bizi naiz. Ahalegindu izan naiz filosofo famosua izaten, baina ignoratu eta isildu egiten naute, eta beti amaitzen dut desolatua. Hori da nire egoera eta aurrean dut, iristen banaiz, nire nagusiaroa, eta ditudan gaixotasunak (diagnostiko multiplea egin baitaiteke) agrabatuaz hilko naiz segurutikan. Estuasuna sentitzen dut sarritan, baina finko mantentzen naiz

Jesusen jarraitzaile, azkenera arte pertseberatzen duena salbatuko omen da, eta umorez ere hartu izan dut neure egoera. Behin, ezkontuta urte batzuk geundela moja batek galdetu zigun ea dibortziorik bazegoen. Eta nik arrapostu nion san Ignaziok zioena, hau da, desolazioan ez dela mudantzarik egin behar, eta beraz aldaketarik ez gure egoeran, ez zegoen dibortziorik.

Orain erranen dut lagun batek erran zidana. Biok idazten dugu, eta hark erraten zidan hil da gero edukiko genuela fama eta ospea. Eta nik erantzun nion hori ere, hil da gero, ez zela segurua, gehienak ahaztuak direla (poesia klasikoa pixka bat ekarriz hona erraten ahal da ahalegintzen diren gehienak Leteon murgiltzen direla). Nik, neure aldetik, egina nuen nire egitekoa, estudiatu, idatzi eta publikatu, osteangoa ez dago nire esku, erraten nion.

Eta amaitzeko emaztearekin kafe bat hartzen nengoela parte zaharreko terraza batean etorri zaidana. Nonbait han munduko aferetan sudurra sartzea da, baina filosofoak klasifikatzen zuen moduan erranda zientzia praktiko batean, politikan. Modu fruktiferoa da nire itxarotea distraitzeko, holaxe gainera ez naiz geratzen buda baten moduan, geldirik, ikasia dudalakoan gaizkiaren jatorria, desioa omen (Shopenhauerrek ere hinduismoan, horregatikan, zekusan erlijioa). Baina erlijio judeokristauan, gurean, hori ez da hala, geldirik geratuz saihestu egiten baitugu egin beharreko asko, eta hor bekatariak gara. Eta pentsatu dut ezen bere zimenduetan, deskribatuak artikulutxo honetan, erlijio judeokristaua ez dela Marxek teorizatu zuen bezala.

Moisesena handia izan zen, Moisesen Jainkoarena hobeto erranda, eta salmoak hor ditugu Haren handia miresten (meza guztietan irakurtzen dira), eta baita ama Birjinak, Andre Mariak, nik ondorioztatzen dut, bere Magnificat hartan erran zue-na ere bada Moisesen Jainkoaren handia mirestea.

Gertatzen da ezen garai guztiak ez direla Moisesenak bezalakoak, noiz Jainkoa errebelatzen den miragarri eta ahal izugarrikoa, eta garai askotan, bai juduen historian eta baita, geroago, nazio guztiak biltzen dituen Elizaren historian ere, gertatzen da halako ahaztea (Izaeraren ahaztea, Heideger esistentzialistak zioen moduan), eta materialismoan erortzea, ateo mordoa agertzen direla eta hola, eta baita Eliza ere armaden eta aberatsenen alde jartzea (aberatsenen alde jartze horretan badut nik ezagutzen pasadizo bat nire gurasoen garaian gertatua: bazen parroko bat famatua egin zena herrian (Soraluze) aberatsenen aldekoa zena eta halakoekin ibiltzea gustukoa zuena, eta fama hori bere belarrietara iritsi ere zen, eta behin, gauzak halaxe, meza bateko sermoian aipatu zuen bere famarena eta galdetu: eta nori ez?, eta hor amaitu ziren haren kontrako zurrumuruak). Baina funtsean gure erlijioaren zimenduek ez dute erakusten Marxek zioena, ez eta hurrik eman ere. Alderantziz ere gertatzen da gure erlijioan, eta ez da hori Jainkoak aberatsak maite ez dituelako. Gure erlijioa, ez datorkit hitz egokirik gogora, nolabait bakarra da, diferentea, justuagoa, egiazkoa denen buru, batez ere ez delako humanoen asmakizuna.

Eta Marxek, bere materialismo dialektikoan, teorizatzen zuen superestruturan ez dago gure erlijioa. Hortik kanpo dago, benetan zerbait benetakorik badago gure erlijioa filosofia material orotatik gain dagoela baieztatu daiteke, eta hor, eskandalizatua zegoenari korrejitu behar diogu bere teoria. Nahiz eta sozialismoa, nik proposatzen dut sozialismo kristaua (nire ekarpena ezkerreko antiklerikalen artean, gorroto ez diena aberatsei, eta ez diot hori eurak adulatzearen), nahiz eta sozialismoa, ikusiaz nola dagoen mundua, onuragarri teorizatzen dudana, baina lanaren kultura baten faltan, orain arte izan omen den moduan, kondenatua dago historiaren bazterretara. Eta pena handia izango litzateke. Etika asko erakusten baitu teorizazio sozialistak.

Nik Elizaren doktrina soziala konparatzen dut, bere bururatzean, sozialismo kristauarekin, eta gomendatzen dut Santiagoren epistola irakurtzea nire etika soziala (politika) laburbiltzen baitu oso ondo.

Adibide bat ipiniko dut. Asko hitz egiten da gaur egun seguritateaz, poliziaz eta armadaz, eta nik erran nion lagun bati, nik seguritate sozialaz hitz egiten dut, eta edukazio basiko publikoaz, unibertsitateraino ere, horretara agian ez da halako erradikalizaziorik gertatzen.

Azken batean mundua, aktualitatea, nola dago?, nahastua eta gaizki, deabruari gustatzen zaion bezala, eta deabruak, Goetheren trajedian, Jainkoari erraten dion bezala.

Nolanahi ere, beti geratzen baitira hondarrak, sekula ez da ahaztu behar karitatea eta limosna. Horretara perfekzioari hur ematen diokegu, meza santuan erraten den moduan. Zeren perfekziora deituak baikara, baina bakoitza bere espeziearen arabera.

Roman Garmendia